


berria
taldea

Pertsona eta profesionala

2017ko Azaroaren 6a

BERRIA taldea 2003. urtean sortu zen, euskarazko komunikazioa eremua indartu eta sendotzea izan da bere egitekoa: euskarazko hedabideak sortu eta garatu



BERRIA taldea – Pertsona eta profesionala






BERRIA – www.berria.eus




Nolakoa da BERRIA taldea?

123 langilek osatzen dute gaur egun
BERRIA taldea



Nolako da BERRIA taldea?



BERRIA taldean azken 5 urteetako **rotazioa** % 7koa izan da. Lana utzi duten langile horietatik %87a emakumeak izan dira eta %33a gizonak.

¿Nondik gatoz?: Euskaldunon Egunkaria-ko lan ituna erreferente.

Bidean: BERRIA taldeko 2005eko eta 2008ko lan itunek jasotzen dituzte bizitza pertsonala eta profesionala uztartzeko neurriak.

Gaur egun: BERRIA taldeko 2015-2019 berdintasun plana

- 10 helburu jasotzen ditu
- 24 ekintza lantzeko prest
- Berdintasun batzordea

Balioak

- ✓ Bizitzan sortzen diren egoera ezberdinak kontutan hartu eta gurasotasunetik harago doazen esperientziak balioan jarriz, kontzilio neurriak izan.
- ✓ Familia eredu ezberdinak aitortu.
- ✓ Bizitza pertsonala eta profesionala uztartu eta pertsonen garapena bultzatu.
- ✓ Ardura partekatua eta berdintasuna.

berria
taldea

Neurriak

Neurriak

- Ezkontza baimena
- Erditzeagatik baimena
- Gaixotasun edo heriotza kasuetarako baimena
- Edoskitze baimena
- Lanaldi murrizketak
- Borondatezko eszedentziak
- Ordaindu gabeko kontratu eteteak
- Etxetik lan egiteko aukera

1- Ezkontza baimena

15 eguneko lanuzte ordaindua ezkontza ofizialik egiten ez den kasuetara zabaltzen du Lan Itunak, eta propio aitortzen die baimen ordaindu hau bikoterik osatzen ez duten langile guztiei ere.

Elkarrekin bikote eran bizi dire sexu bereko zein diferentetako lagunek osatua hartzen da bikotetzat.

Praktika honek familia eredu zabalago bat aitortzeaz gain, bizitza eredu guztiak hartzen ditu kontuan.

2- Erditzeagatik baimena

Erditzeetan amaren bikoteari ez ezik amaren bizilagunari, edonor dela ere, aitortzen zaio hiru egun jai hartzeko eskubidea.

Praktika honek aintzat hartzen du familia eredu zabalagoa.

3- Gaixotasun edo heriotza kasuetarako baimena

Zuzeneko familiaz gain lagun hurko eta etxe kideen gaixotasun edo heriotza kasuan ere hiru eguneko lanuzte eskubidea onartzen zaie langileei.

Praktika honek aintzat hartzen du familia eredu zabalagoa.

4- Edoskitze baimena

Legez onartzen den edoskitze baimena zabaldua du BERRIA Taldeak. Haurrak 9 hilabete bete arteko baimena izan beharrean, gure kasuan urtebete arteko haurren edoskitzea errazten da. Edoskitze orduak metaturik hartzea erabakitzen duten langileen kasuan, gainera, baimen hori hilabete osokoa da.

Praktika honek gurasotasuna eta lanaren arteko kontziliazioa hobetzen du.

5- Lanaldi murrizketak

Lan Itunak eta legeak jasotzen dituen haur eta senide zaintzarako murrizketa aurkerez gain, BERRIA taldea lanaldia murrizteko borondatezko eskaerei erantzuna ematen ahalegintzen da, eta hala egin dugu azken urte hauetan jaso ditugun eskaerekin.

Praktika honek familia beharretatik aparte pertsonaren garapena ahalbideratzen du, erraztu egiten baitu langileek beste proiektu (profesional nahiz bestelakoa), ikasketa edo bizitzako egoera batzuei erantzutea.

6- Borondatezko eszedentziak

BERRIAN borondatezko eszedentzia hartzen duten langileei lan arlo bereko lanpostu bat gordetzen zaie itzuleran.

Praktika honek familia beharretatik aparte pertsonaren garapena ahalbideratzen du, erraztu egiten baitu langileek beste proiektu (profesional nahiz bestelakoa), ikasketa edo bizitzako egoera batzuei erantzutea.

7- Ordaindu gabeko kontratu eteteak

Borondatezko eszedentziaz gain, BERRIAN 4 hilabetetik beherako kontratu eteteak eskatu ditzakete langileek.

Orokorrean, ikasketak burutzeko edo beste proiektu profesional batera bideratzeko hartzen dira.

Praktika honek familia beharretatik aparte pertsonaren garapena ahalbideratzen du, erraztu egiten baitu langileek beste proiektu (profesional nahiz bestelakoa), ikasketa edo bizitzako egoera batzuei erantzutea.

8- Etxetik lan egiteko aukera

2015. urtetik langileek etxetik lan egiteko aukera dute. Lanpostu gutxi batzuk salbu, urtean 18 egunez lan egin daiteke etxetik.


Praktika honek bizitzako beste arlo batzuekin lana bateragarriagoa egiten laguntzen die langileei.

berria
taldea


Emaizak

- Azken 3 urteetan 14 langilek hartu dute **ezkontza baimena**:


Ezkontza baimena




Ezkontza baimena




- Azken 5 urteetan 16 langilek eskatu dute beraien **lanaldia murriztea**:





Ianaldi murrizketa- Emak




Ianaldi murrizketa- Giz



- Azken 5 urtetan 39 langilek eskatu dute **eszedentzia** motaren bat:




- Guztira azken 5 urtetan 9 langilek eskatu dute 4 hilabetetik beherako **ordaindu gabeko kontratu etetea**, horietatik % 67a emakumeak izan dira eta % 33a gizonak, kasu guztietan proiektu profesional nahiz pertsonalak aurrera ateratzeko eskatu dira baimen hauek.



- Emakume langile gehiagok baliatzen du **etxetik lan egiteko aukera**, 2017an 23 langiletik %78a emakumeak izan ziren eta %22a gizonak.

etxetik lan egin



Arrakasta faktoreak:

- **Malgutasuna** landu beharra. Lanarekiko ardura eta motibazioa, bien arteko sinergian sinistea.
- Lankide bakoitzaren **interes eta behar pertsonalak** ezagutzea.
- **Kudeaketa neurriak** beharrezkoak dira.

berria

taldea



Eskerrik asko